

JARRAIPEN TXOSTENA

AZTERTUTAKO TITULAZIOA	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN, BATXILERGOAN, LANBIDE HEZIKETAN ETA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN IRAKASLE GISA ARITZEKO GAITZEN DUEN UNIBERTSITATE MASTERRA
AZTERTUTAKO ZENTROA	HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
AZTERTUTAKO UNIBERTSITATEA	MONDRAGON UNIBERTSITATEA
JARRAIPENAREN PEAN DAGOEN IKASTURTE AKADEMIKOA	2010-2011

Titulu ofizialak nola ezarri arautzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren (uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuak aldatzen duenak) 27. artikuluan eta urtarrilaren 20ko 11/2009 Dekretuaren 17. artikuluko 4. Atalean ezarritakoari jarraiki, goian aipatutako unibertsitate titulazio ofizialaren jarraipena egin da.

Jarraipen prozedura hau 2012ko urriaren 16an Unibasqeko Aholkulari Batzordeak onartutako Euskal Unibertsitate Sistemako Unibertsitate Titulu Ofizialen Jarraipenerako Protokoloaren arabera egin da. Aipatutako protokoloa CURSA Batzorde Teknikoak (Jarraipena eta Akreditazioa Arautzeko Unibertsitate Batzordea) landutako "Unibertsitate-titulu ofizialen jarraipena egiteko eta akreditazioak berritzeko protokoloa" eta indarrean dagoen araudiaren arabera sortu da.

Txosten hau Unibasqeko zuzendariaren 2012ko azaroaren 30eko eta 2013ko maiatzaren 23ko ebazpenen bidez izendatutako Tituluak Ebaluatzeko Batzordeak egin du era kolegiatuan aurrerantzean zehazten diren atalei jarraiki:

1. ESKURA DAGOEN INFORMAZIO PUBLIKOA

Irizpidea betetze mailaren azterketa:

Webgunean eskainitako informazioa oso eskura erraza eta argia da formatuari, azalpenen ordenari eta nabigatzeko erraztasunari dagokienez, baina, dena den, oraindik ere badago zer hobetu zenbait alderdi espezifikotan, eta alderdi horiek hobetzeko gomendio batzuk emango ditugu jarraian.

Oro har, informazioa objektiboa da eta tituluaren memoriarekin bat dator. Gainera, tituluak ulertzeko beharrezko



tresnak jartzen ditu ikasle izan daitezkeen eskura.

Hobekuntza proposamenak:

Jarraian, zenbait ohar emango ditugu, gomendio gisa, webgunean eskuragarri dagoen informazioa hobetzeko:

- **Hizkuntza dagokionez:**
Euskarazko eta gaztelaniazko bertsioetan emandako informazioa ez dator bat zenbait puntutan. Esaterako, Irakaslegoa izeneko atala euskarazko bertsioan dago, baina ez da gaztelaniazko bertsioan azaldu. Bi bertsioak informazio bera ematea gomendatzen da.
Gaztelaniazko bertsioan badaude lotura batzuek euskarazko dokumentuak irekitzen dituztenak (ad. Ostatua eta garraioan).
Masterra euskaraz, gaztelerez eta ingelesez ematen bada ere, programan materia guztiaz euskaraz direla adierazten da. Gaztelerez eta ingelesez zeintzuk emango diren zehaztea gomendatzen da.
Ingelesezko informaziorik ere ez dago, nahiz eta horretara iristeko lotura bat izan. Hobe litzateke hizkuntza horretako bertsioa jasotzea, edo bestela lotura kentzea.
- **Web orrialdiaren funtzionamenduari dagokionez:**
Badaude ez dabiltzan lotura batzuk (ad. Sarrera eta onarpenaren titulazio taula gaztelerezko bertsioan), informaziorik gabeko orrialdetara eraman dituztenak (ad. Ostatu eta garraioan, irakaslegoan) edo informazio egokia lotzen ez dutenak (ad. Arrasateko Ikastetxe Nagusiari buruzko informazioak gaztelerezko bertsioan Mondragon Unibertsitateko informazio orokorrera eramaten du). Loturen azterketa orokorra egitea gomendatzen da.
- **“Tituluaren deskribapen orokorrari” dagokionez:**
Adierazi eskainitako plaza kopurua.
Sartu irauteko arauari buruzko informazioa.
Sartu gutxieneko ECTS kredituei buruzko informazioa, denbora osoaren edo partzialaren arabera.
- **“Ikasleen sarbidea eta onarpenari” dagokionez:**
Sartu memorian aipatutako onarpen irizpideak.
Sartu sartzeko epeei buruzko informazioa.
Sartu izena aldeztu aurretik emateko eta matrikulatzeko prozedurei buruzko informazioa.
Sartu ikasleak orientatzeari buruzko informazioa.
- **“Titulazioaren egutegia eta ordutegiari” dagokionez:**
Sartu egutegi akademiko zehaztuagoa, irakaskuntza eta tutoretza ordutegia barne.
- **Kanpo-praktikei dagokionez, sartu erakunde lankideen zerrenda.**
- **Langile akademikoari dagokionez:**
Sartu irakasleen irakaskuntza- eta ikerkuntza-profilari buruzko informazioa.

- Sartu Baliabide materialak eta zerbitzuei buruzko informazioa.

Aurkitutako jardute onak:

Mondragon Unibertsitatearen webgunean, ikasle berrientzako microsite bat dago, eta bertan aurki daitezke, besteak beste, eskuragarri dauden bekei buruzko informazioa, ikasleen esku jarritako zerbitzu eta azpiegituren deskribapena eta tituluen bilatzaile bat.

Webgunean Mondragon Unibertsitatearen bideo korporatibo bat dago ikusgai, Unibertsitate horren balio positiboak nabarmentzen dituena. Bideoak Mondragon Unibertsitatearen irudi erakargarria ematen du aditzera, eta aukera ematen du, gainera, erakundeak erabilitako filosofiaren eta irakaskuntza-sistemen funtsezko alderdiak ezagutzeko.

Ikasketei buruzko informazioa jarraitzeko aukera ematen du webguneak, gizarte-sareen bitartez.

2. KALITATEA BERMATZEKO BARNE-SISTEMA (KBBS / SIGC)

Irizpidea betetze mailaren azterketa:

Tituluari buruzko autotxostenean aurkeztutako informazioarekin ezinezkoa da egiaztapen-memorian deskribatutako prozedura guztiak martxan jarri diren edo ez balioestea.

Aurkeztutako autotxostenean zenbait adierazle bildu dira, emaitzen balorazioarekin, hobetzeko proposamenen jarraipenarekin eta identifikatutako indarrekin batera. Aipatutako adierazleen artean, errendimendu-tasa, uzte-tasa, graduatze-tasa eta efizientzia-tasa kalkulatu dira.

Hobekuntza proposamenak:

Hobe litzateke tituluaren arduradunek, jarraipen-autotxostenean, kalitatea bermatzeko barne-sistemaren aplikazioaren balioespen argiagoa egitea, aurkitutako problematikak eta haiek konpontzeko hartutako erabakiak identifikatuta. Atal horretan argi eta garbi adierazi beharko litzateke, batetik, adierazle eta emaitza nagusiak aintzat hartzen eta aztertzen direla, eta, bestetik, azterketa hori kontuan hartzen dela tituluaren hobetzeko ekintzak eta aldaketak proposatzeko.

Komeniko litzateke, noski, egiaztapen-memoriaren kalitatea bermatzeko sistemari buruzko atalean aurreikusitako jardunekin aurrera jarraitzea.

Aurkitutako jardute onak:

Autotxostenean, adierazleei buruzko balioespen ikusgarria aurkeztu da, semaforoaren bitartez.

3. HOBEKUNTZA NEURRIAK

Irizpidea betetze mailaren azterketa:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan Irakasle Gisa Aritzeko Gaitzen duen Unibertsitate Masterrak Unibasqen jarraipen plan pilotuan hartu zuen parte. Behin betiko jarraipen txostena, zenbait gomendioekin, 2011ko abenduaren 21ean igorri zen. Gomendio horiek ez dira aztertu Mondragon Unibertsitateak aurkeztutako jarraipen autotxostenean.

Hobekuntza proposamenak:

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak AUDIT programarako eredu bat aurkeztu zion agentziari. Unibasqek horren aldeko txostena eman zuen, baina hobetzeko zenbait proposamen gomendatu zituen.

Horren ondorioz, tituluari buruzko ondorengo autotxostenetan, agentzien txostenetan ezarritako gomendioei jarraiki zer ekintza bete diren adieraziko da, edo bestela, txosten horietan ezarritako hobekuntza-ekintzak zergatik ez diren bete justifikatuko da.

Aurkitutako jardute onak:

TXOSTENAREN ONDORIOAK:

Webgunean eskainitako informazioa oso eskura erraza eta argia da formatuari, azalpenen ordenari eta nabigatzeko erraztasunari dagokienez, baina, dena den, oraindik ere badago zer hobetu zenbait alderdi espezifikotan, eta alderdi horiek hobetzeko gomendio batzuk eman ditugu.

Jarraipen-autotxostenean, balioespen argiagoa jaso beharko litzateke kalitatea bermatzeko barne-sistemaren aplikazioari buruz. Atal horretan argi eta garbi adierazi beharko litzateke, batetik, adierazle eta emaitza nagusiak aintzat hartzen eta aztertzen direla, eta, bestetik, azterketa hori kontuan hartzen dela titulua hobetzeko ekintzak eta aldaketak proposatzeko.

Hobe litzateke AUDIT sistema fase guztietan ezartzea.

Hurrengo titulazioari buruzko jarraipen txostenetan agentzien txostenetan (aldaketei buruzko txostenetan, jarraipen txostenetan edo AUDIT txostenetan) emandako gomendioei nola erantzun zaien zehaztea gomendatzen da.

Eskura dagoen informazio publikoan, agentzien txostenetan ezarritako gomendioak kontuan hartuta egindako ekintzetan eta kalitatea bermatzeko barne-sistemaren funtzionamenduan oinarrituta aurkeztutako ebidentziak kontuan hartuta, hurrengo irizten da, txosten honetan gomendatutako hobekuntza proposamenak aintzat hartuta, titulazioaren ezarpenaren jarraipen egokia burutu daitekeela.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko urriaren 4an,